

KARMELE MUÑOA ARRIGAIN andreak, Bermeoko Udaleko jarduneko idazkariak,

**ZIURTATZEN DOT:**

2009ko ekainaren 10ean **Tokiko Gobernu Batzarrak** erabagi hau agindu dauela:

**6.- UDALTZAINGOAREN EGOITZA BARRIA EGITEKO PROIEKTUA BEHIN BETIKO ESLEITZEA.**

**Xedea**

Udaltzaingoen egoitza barria eregiteko exekuzino proiektua, segurtasun eta osasun plana, kalidadearen kontrolaren programea, eraikinaren liburua, obrak exekutatzeko eta ondoren udalak hartzeko beharrezkoa dan edozein dokumentazino, eta obrako Zuzendaritza Fakultatiboa behin betiko esleitzea.

**Aurrekariak**

Lehenengoa: 2008ko zemendiaren 27an Tokiko Gobernu Batzarrak Udaltzaingoen egoitza barriaren proiektua esleitzeko baldintza-agiriak onartzea eta deialdia zabaltzea erabagi eban.

Bigarrena: Aitatutako kontratazino-prozesua prozedura ireki bidez bideratu ostean, 2009ko maiatzaren 6ko Tokiko Gobernu Batzarrean, obrea behin-behinekoz esleitzea erabagi zan.

Laugarrena: 2009ko maiatzaren 11n behin-behineko esleipena kontratugilearen profilean argitaratu zan.

**Argudioak**

Bakarra: Behin-behineko esleipenaren iragarkia legeak agintzen dauen denporan egon da iragarrita eta, epe horretan, ez da alegazinozik ez erreklamazinozik jaso.

Bestalde, behin-behinekoz proposatutako esleipendunak emondako epearen barruan bete dauz bere eginbeharrak eta, ondorioz, legezko urrats guztiak bete dira, behin-behineko esleipena behin betiko bihurtzeko.

**Erabagia**

Goian aitatutako guztia kontuan hartuta, aho batez, honako hau erabagi dau Tokiko Gobernu Batzarrak:

BAKARRA: Udaltzaingoaren egoitza barria eregiteko exekuzino proiektua, segurtasun eta osasun plana, kalidadearen kontrolaren programea, eraikinaren liburua, obrak exekutatzeko eta ondoren udalak hartzeko beharrezkoa dan edozein dokumentazino, eta obrako Zuzendaritza Fakultatiboa behin betiko esleitzea, era honetan:

- ENPRESEA: NIP, SA
- PREZIOA: 52.200 BEZa barne
- EXEKUZINO EPEA: 45 egun.
- Esleipendunari jakinarazotea, 10 eguneko epearen barruan, kontratua sinatu beharko dauela eta, holan egin ezean, udalak esleipena bertan behera itxi ahal izango dauela.

Eta honela izan daiten eta ondorio egokiak eragin daizan, alkate jaunaren aginduz eta onetsiaz, ziurtagiri hau idazten dot, eta bere xedea dan erabagia onartu barik dagoan akta batean dagoala adierazoten deusut, behin betiko onespeneren menpean dagoela ohartarazota, Bermeon, 2009ko ekainaren 12an.

ONETSIA  
ALKATEA